

 PASAIKO UDALA IDAZKARITZA	Espediente zk. / N.º expediente: 2023IKOR0025	
	Sarrera-erreg. / Reg. de entrada:	- 000000
	Titularra / Titular:	PASAIKO UDALA
	Ordezkarria / Representante:	
	Gaia / Asunto: Behin-behineko langilea izendatzea alkatearen idazkari pertsonala / Nombrar como personal eventual a Secretaria personal de Alcaldía	

Alkatearen ebazpena, 2023/1942 zenbakiduna, 2023ko azaroaren 3koa, alkatearen idazkari lanpostua betetzeko behin-behineko langilearen izendapenari buruzkoa:

Pasaia Udaleko egungo lanpostuen zerrendan eta aurrekontu plantillan alkatearen idazkari postuari dagokion plaza aurreikusten da, egun hutsik dagoena.

Abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 30. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 104.2 artikulua behin-behineko langileak izendatzea aurreikusten dute, konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eta karrerako funtzionarioentzat edo lan-kontratuko langile finkoentzat gordeta ez dauden eta aurrekontu-zuzkidura duten lanpostuak betetzeko.

Horregatik guztiagatik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 104.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- 2023ko azaroaren 6tik aurrera, behin-behineko langile izendatzea Olaia Gerendiain Ruiz de Gauna andrea, alkatearen idazkari lanpostua betetzeko. Arduraldi osoa izango du eta, ordainsariari dagokionez, UDALHITZeko 11. maila izango du.

Bigarrena.- Alkatearen ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 104.3. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Resolución del alcalde nº 1942/2023, de 3 de noviembre de 2023, sobre nombramiento de personal eventual para ocupar la plaza de Secretaria de alcaldía:

En la vigente relación de puestos de trabajo y plantilla presupuestaria del Ayuntamiento de Pasaia, existe una plaza vacante correspondiente al puesto de de secretaria de alcaldía.

El artículo 30 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, y el artículo 104.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local prevén el nombramiento de personal eventual para el desempeño de puestos de trabajo, que considerados de confianza o asesoramiento especial, no están reservados a funcionarios/as de carrera ni a personal laboral fijo y estén dotados presupuestariamente.

Por todo lo expuesto, y de conformidad con lo establecido en el artículo 104.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local,

RESUELVO

Primero.- Nombrar como personal eventual a Dña. Olaia Gerendiain Ruiz de Gauna para ocupar la plaza de Secretaria de alcaldía con un régimen de dedicación completo y nivel 11 de UDALHITZ a partir del 6 de noviembre de 2023.

Segundo.- Ordenar la publicación del presente decreto de alcaldía en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, de conformidad con lo establecido en el artículo 104.3 de la ley de Bases de Régimen Local.

Tercero.- Notificar la presente resolución a la persona interesada.

Pasaia, 2023ko azaroaren 6an / Pasaia, 6 de noviembre de 2023

Izpta. / Fdo. Teo Alberro Bilbao

Alkatea / El alcalde

IRAGARKI TAULA – WEB ORRIA

2/2



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUD0beb16d-7977-41ac-b9fe-3d3d83412520**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410>